



URDAIAZPIKO ETA GAZTA SANDWICHEZ OSATUTAKO HOSTOPILA

OSAGAIAK

(4 pertsonarentzat)
16 xerra moldeko ogi, azalik gabe
12 xerra urdaiazpiko egosi
12 xerra gazta
25 gr gurin

ELABORAZIOA

Arrabol baten laguntzaz zanpatuko ditugu ogi xerrak, eta hostopila osatzen hasiko gara, ogia, urdaiazpikoa eta gazta tartekatuta.

Film-paperarekin estaliko dugu eta gainean pisua jarriko diogu 30 minutuz. Film-papera kendu.

Gurina zartaginean desegin, eta hostopila markatuko dugu, gorritu arte. Sutik atera, eta erdibitu egingo dugu. Zerbitzatzeko garaia da.



PREZIOA
TXIKIA



DENBORA
20'



ZAILTASUNA
4/10



OSASUNGARRIA
6/10